

INGURUMENENKO INFORMAZIO BATZORDEA

Ingurumeneko errealitatearen gainean gizartean gero eta kezka handiagoa dagoela kontuan harturik eta Getxoko udalerriaren garapen iraunkorrerantz aurrera egiteko helburuz.

GERTAERA: Ingurumeneko teknikariak, 2000. urteko urtarrilaren 18an, hurrengo txostena eman du:

Ingurumena zerbait garrantzitsutzat esparru politiko guztietan agertzen hasi zen 70eko hamarkadan, batez ere geroz eta ingurumeneko arazo larriagoak agertu zirenean (klimaren aldaketa, desertifikazioa...). Hala zientziaren arlotik zein gizartearenetik agerikoa zen oraingo bizimoduari behin betiko eusterik ez zegoela, baliabide mugatuak zituen planeta batean. Horrek gure gizartean oso orokortuta dagoen garapen iraunkorraren kontzeptua erabiltzera eraman zuen (*oraingo beharrianak asetzen dituen baina etorkizuneko belaunaldiek bereak asetzeko gaitasuna arriskuan jartzen ez duen garapena*).

1992. urtean Río de Janeiro hirian 170 gobernu elkartu ziren garapen iraunkorraren kontzeptua zehaztu eta munduko garapenaren etorkizuna markatzen duen ekintza-plana egiteko jarraibideak finkatzeko asmoz. Bilera hauetatik geroko lanean aginduko duten akordio zabalak sortu ziren:

- Ingurumenari buruzko Rioko Adierazpena.
- Basoei buruzko printzipioen adierazpena.
- Agenda XXI edo Programa XXI (Garapen iraunkorra sustatzeko munduko ekintza plana).

Azken puntu hau gobernuak, garapeneko erakundeek eta batez ere tokiko erakundeek, hauek herritarrengandik hurbilen dauden administrazioak direlako, gauzatu beharreko ekintza programa da.

1994. urtean Aalborg hirian (Danimarka) Europako Hirien Gutuna Iraunkortasunerantz (Aalborgeko Gutuna) idatzi zuten, 330 hiri baino gehiagok sinatutakoa. Aipatutako gutuna sinatzeak tokiko agintaritzak Tokiko Agenda 21 delakoaren prozesuan parte hartzeko tokiko agintaritzaren konpromisoa dakar, eta bere xedea iraunkortasunerako tokiko ekintza plana sortu eta gauzatzea da.

Aurretik adierazitakoa dela kausa, Udal Ingurumeneko ordezkariak, helburuen artean, iraunkortasunerako tokiko ekintza plana sortzea eta Agenda XXI idaztea ditu, eta bertan bere jarraibideak finkatuko dituzte. Horri begira, 1999. urtean INGURUNE enpresa kontratatu genuen ingurumeneko aholkulari gisa, aurretik aipatutako zeregin horiek hasteko asmoz.

Agenda XXIeko Plan hori burutzeko lanak hasitakoan, ikusi dugu komenigarria izango litzatekeela Udalaren Osoko Bilkurak (Getxoko herritarren ordezkari behinena) Aalborgeko Gutunera atxikitzea eta berau sinatzea, udalerriak garapen iraunkorrerantz aurrera egiteko konpromisoa har dezan.

GERTAERA: Getxoko Udal Txit Argiak, 2000. urteko urtarrilaren 28an, egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez, honakoa xedatu zen:

“LEHENENGOA: Getxoko Udala Europako Hiri Iraunkorren Kanpainara (Aalborgeko Gutuna) atxiki dadin onestea, gure udalerrian garapen iraunkorreko eredurantz aurrera egiteko helburuz.

BIGARRENA: Ahalkatetza-Udalburutzari ahalmena ematea Aalborgeko Gutuna sina dezan, bai eta erabaki hau burutzearen beharrezko diren xedapen guztiak eman ditzan ere.”.

GERTAERA: Getxoko Udalaren Osoko Bilkurak, 2001. urteko apirilaren 27an egindako bilkura arruntean, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak sustatutako Euskal Autonomia Erkidegoko Iraunkortasunaren Aldeko Konpromisora Atxikitze erabakia hartu zuen, hala gure udalerrian nola Autonomia Erkidegoaren eremuan garapen iraunkorreko eredurantz aurrera egiteko xedez.

GERTAERA: Tokiko Agenda 21 Udal Egiturazko Plana da. Berau udalerriko ingurumen, ekonomia eta gizarteko politikak, irizpide iraunkorrak erabiliz, integratzean datza, eta partaidetzatik eta ordezkari politiko, udal langile tekniko, inplikaturako eragile eta udalerriko hiritarren artean adostutako erabakiak hartzetik sortu da.

GERTAERA: Udalbatzak hartutako konpromisoaren ostean, Europako Hiri eta Herrien Gutuna Iraunkortasunerantz onetsita, helburuetako bat Ingurumeneko Tokiko Foroa eratzea da, hiritarren partaidetzaren bidez, udalerriko natura eta hiriko ingurumenari buruzko udal eskumenak erabiltzen laguntzeko helburuz.

OINARRIA: Getxoko Udalak erabilgarri dauden tresna politiko eta teknikoak erabiltzeko konpromisoa hartu du hiriko kudeaketaren plangintza ekosistematikoa lortzearen. Horretarako, tresna sorta zabala erabiltzen da ingurumeneko datuak bildu eta tratatzeko eta ingurumeneko plangintza egiteko, baita arau, ekonomia eta komunikazioko tresnak ere, hala nola zuzentarauak, zergak eta eskubideak ere, eta sensibilizatzeko mekanismoak, jendearen partaidetza barne.

OINARRIA: Aalborgeko Gutuna sinatzean, Getxoko Udalak, besteak beste, Programa 21 laguntzeko tokiko planak prestatzeko orduan, bere komunitateko arlo guztiekin batera – hiritarrak, enpresak, intereseko taldeak- lan egiteko konpromisoa hartu du.

OINARRIA: Tokiko Erakundeen Funtzionamenduari buruzko Araudian aurreikusitakoarekin bat etorritik, hiritarren partaidetza Kontseiluen bitartez bideratzen da, eta hauek txostena eta, beharrezko bada, proposamena burutzeko eginkizunak dituzte, gainera, berezitasun gisa, hiritarrak eta elkarteak, bere partaidetzaren bidez, integratu daitezten ahalbidetzea dago.

OINARRIA: Tokiko Iraunkortasunerantzko prozesuak hiritarren partaidetza behar-beharrezko du, izan ere, partaidetza horrek udal erabakiak hartzeko prozesua aberasten du eta udal politikek ukituriko eragileen iritzia barne hartzen du.

Helburu horrekin, hain zuzen ere, hiritarren partaidetzako foroak eratzen dira; lan-talde hauen helburua, berriz, herritarrek Tokiko Agenda 21 ezarri eta garatzeko prozesuan parte har dezaten da, berau hiritarren sektore guztiek osatuta egonik.

Bere arrakasta bultzatzeko, beharrezkoa da oinarritzko araudia prestatzea, eta bertan helburuak, osaera, eginkizunak eta funtzionamenduko arauak zehaztuko dira.

OINARRIA: Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea; Udal Araudi Organikoaren 7. eta 159. artikulua; Tokiko Erakundeen Antolaketa,

Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren 2568/86 Errege Dekretuaren 130. eta 131. artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Lege Orokorrari buruzko otsailaren 27ko 3/98 legea; "Europako Hirien Gutuna Iraunkortasunerantz ", AALBORGEKO GUTUNA; eta baterako gainerako legeria,

Ingurumen Arloko arduradunak Batzordearen aurrean honakoa aurkeztu du

ERABAKI PROPOSAMENA

LEHENENGOA: Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa sortzea, alkatetzara atxikitako aholkularitzako hiritarren partaidetzako organotzat. Bere araudia erantsitako agirian gaineratu dugu.

BIGARRENA: Alkatetza-Udalburutzari ahalmena ematea erabaki hau burutzeko beharrezko diren xedapen guztiak eman ditzan.

Getxon, 2003. urteko azaroaren 13an

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA

ATARIKOA

TITULO PRELIMINAR

1. artikulua. Eraketa

Artículo 1. Constitución

Udalbatzak 2000ko urtarrilean Europar Hiri eta Herrien Gutuna Jasangarritasunaren bidean (Aalborgeko Gutuna) onetsiz hartutako konpromisoaren babesean, Getxoko Udalean Ingurumeneko Tokiko Foroa eratu da, kontsulta izaerako herritarren partaidetza erakunde gisa, Alkatetza arloari atxikita.

Al amparo del compromiso adquirido por la Corporación Municipal en enero de 2000 aprobando la Carta de las Ciudades y Pueblos Europeos hacia la Sostenibilidad (Carta de Aalborg), se constituye en el Ayuntamiento de Getxo el Foro Local de Medio Ambiente, como órgano de participación ciudadana de naturaleza consultiva, adscrito a la Alcaldía.

2. artikulua. Xedea

Artículo 2. Objetivo

Tokiko Foroaren oinarritzko xedea udalaren kudeaketan ingurumenaren babesaren eta jasangarritasunaren irizpideak eranstea eta, Getxoko udalerrian, natura eta hiri inguruneari dagokionez, udalaren eskumenak gauzatu eta betearazteko orduan herritarren proposamenak kontuan hartzea da.

El Foro Local tiene como objetivo básico la incorporación de criterios de protección ambiental y de sostenibilidad en la gestión municipal, y propuesta ciudadana en el ejercicio y cumplimiento de las competencias municipales, referidas al medio ambiente natural y urbano, del municipio de Getxo.

3. artikulua. Eginkizunak

Artículo 3. Funciones

Hona hemen Ingurumeneko Tokiko Foroaren eginkizunak:

Son funciones del Foro Local de Medio Ambiente:

- | | |
|--|---|
| a) Ingurumen arloko arduradunak Foroaren jardueraren esparruarekin zerikusia duten egintza arauemaileen edo bestelakoen gainean bidaltzen duen informazioa jasotzea. | a) Recibir la información que se remita por parte del responsable de Medio Ambiente, en relación con actuaciones normativas o de otra índole relacionadas con el ámbito de la actividad del Foro. |
| b) Udal gobernuko Ingurumen arduradunak bere gaiari dagokionez eskatzen dituen gai edo proiektuei buruzko txostenak egin eta proposamenak aurkeztea. | b) Emitir informes y realizar propuestas sobre los temas o proyectos que dentro de su materia sean solicitados por el responsable del gobierno municipal en Medio Ambiente. |
| c) Udalaren jarduera zehatzak, ingurumenaren alorrean, hobetzera bidera daitezten neurriak edo jarduketak eztabaidatzea. | c) Debatir medidas o actuaciones que mejoren actividades municipales concretas, en el campo medioambiental. |
| d) Ekimen publikoak eta pribatuak koordinatzea, ingurumen alorraren xedeen ildotik. | d) Coordinar iniciativas públicas y privadas de acuerdo con los objetivos del area medioambiental. |
| e) Udalerraren ingurumen kalitatearen | e) Conocer el diagnóstico de la calidad |

- | | |
|--|--|
| <p>diagnostikoa ezagutzea, baita Getxok ingurumen gaitan dituen arazo nagusiak zehazten laguntzea ere.</p> <p>f) Ingurumenaz sentsibilizatzeko eta informazioa zabaltzeko ekinaldi eta jardueretan parte hartzea.</p> <p>g) Agenda 21en aplikazioan parte hartzea, ingurumen politikaren diagnostikoaren eta plangintzaren partaidetzazko metodo orokorra delako.</p> <p>h) Garapen jasangarriaren irizpideak aztertzea, bai udalaren beraren jarduerarako bai herritar partikularrentzat.</p> | <p>medioambiental del municipio, así como colaborar en la determinación de los problemas prioritarios de Getxo en materia medioambiental.</p> <p>f) Participar en las campañas y actividades de sensibilización y divulgación ambiental..</p> <p>g) Participar en la aplicación de la Agenda 21 como método participativo global de diagnóstico y planificación de la política medioambiental.</p> <p>h) Analizar criterios de desarrollo sostenible, tanto para la propia actividad municipal, como para la de los ciudadanos particulares.</p> |
|--|--|

**I. GOIBURUA:
ORGANOAK**

FOROAREN

TITULO I : DE LOS ORGANOS DEL FORO

4. Artikulua. Eraketa

Artículo 4. Composición

1. Hona hemen nola eratuko den Foroa:

1.La composición del Foro será la siguiente:

- a) Foroaren osoko bilkura
- b) Lehendakaritza.
- c) Lehendakariordetza
- d) Idazkaritza
- e) Lan Batzordeak

- a) El Pleno del Foro
- b) La Presidencia.
- c) La Vicepresidencia
- d) La Secretaría.
- e) Las Comisiones de Trabajo

5. artikulua. Foroaren osoko bilkura

Artículo 5. El Pleno del Foro

1. Hona hemen nola osatuko den:

1.La composición del Pleno será la siguiente :

- | | |
|--|--|
| <ul style="list-style-type: none"> a) Udalerriko alkatea lehendakari b) Kudeaketan ardurarik duten bi zinegotzi, horietako bat lehendakariorde. c) Idazkari bat, Ingurumen Arloko goi teknikaria. d) Ingurumen arloko teknikari bat e) Udalerriko enpresa-munduko bi ordezkari, enpresetan lan egiten dutelako edo enpresen elkarteren bateko kide direlako. f) Erakunde ekologistaren bateko eta naturaren aldeko kolektiboren bateko hiru ordezkari. g) Kultura, kirol edo gizarte elkarteetako kide diren hiru pertsona. | <ul style="list-style-type: none"> a) El Alcalde del municipio, como Presidente. b) Dos Concejales con responsabilidades de gestión, de los que uno será Vicepresidente. c) Un Secretario, que será el Técnico Superior del área de Medio Ambiente. d) Un Técnico del área de Medio Ambiente. e) Dos personas representantes del tejido empresarial del municipio; bien por ejercer sus funciones en empresas, bien por pertenecer a alguna asociación empresarial. f) Tres personas que representen a alguna organización ecologista y colectivo naturalístico. g) Tres personas que pertenezcan a asociaciones culturales, deportivas o sociales. |
|--|--|

- | | |
|---|--|
| h) Ikastetxeetako bi ordezkari.. | h) Dos representantes de centros escolares |
| i) Kontsumitzaileen elkarteren bateko ordezkari bat. | i) Una persona que represente a alguna asociación de consumidores. |
| j) Unibertsitate munduko pertsona bat. | j) Una persona que pertenezca al mundo de la universidad. |
| k) Ezgaituen elkarteren bateko kide den pertsona bat. | k) Una persona que pertenezca a alguna asociación de discapacitados. |
| l) Ingurumenaren alorrean ezagumen handikoak diren bi pertsona. | l) Dos personas de reconocido prestigio en el campo del Medio Ambiente |

2. Osoko Bilkurako kideak Lehendakaritzak izendatuko ditu, zehazten diren mekanismoen bidez.	2. Los miembros del Pleno, serán nombrados por la Presidencia, a través de los mecanismos que se determinen.
--	--

3. Kide kopurua gehitu ala gutxitu ahalko da, sortzen diren ingurumariei adituz, eta betiere kide horiek sartzea idatziz eskatu bada eta lehendakaritzaren onespena lortu badu.	3. El número de miembros podrá aumentar o disminuir, atendiendo a las circunstancias que surjan y siempre que la incorporación haya sido solicitada por escrito y obtenga la aprobación de la Presidencia.
---	--

6. artikulua. Osoko Bilkurako kideen eskumenak	Artículo 6 . Atribuciones de los miembros del Pleno.
---	---

1. Hona hemen osoko bilkura osatzen duten pertsonen eskumenak:	1.Las personas que componen el Pleno podrán:
--	--

- | | |
|---|---|
| a) Bileretako eztabaidetan parte hartzea. | a) Participar en los debates de las sesiones. |
| b) Ingurumenari buruzko azterlanak egitea. | b) Realizar estudios sobre Medio Ambiente. |
| c) Galderak eta eskeak egitea. | c) Formular ruegos y preguntas |
| d) Bere kide izaerarekin berez doazen bestelako eginkizunak garatzea. | d) Desarrollar cuantas otra funciones sean inherentes a su condición. |

2. Osoko bilkurako kideek ezin izango dituzte ordezkari lanak beren gain hartu, horiek lehendakaritzarenak soilik izango baitira, kasu zehatz bakoitzerako, besteren bat eskuordetu ez badu behintzat.	2. Los miembros del Pleno no podrán atribuirse funciones de representación, que corresponderán únicamente a su Presidencia, salvo que expresamente se les haya otorgado, para cada caso concreto.
--	---

7. artikulua. Lehendakaritza	Artículo 7. La Presidencia
-------------------------------------	-----------------------------------

1. Udaltzako alkate jaun edo andrea izango da lehendakaria.	1. El Alcalde o Alcaldesa de la Corporación Municipal ostentará la presidencia.
---	---

8. artikulua. Lehendakaritzaren eginkizunak	Artículo 8. Funciones de la Presidencia
--	--

- | | |
|--|---|
| a) Foroaren ordezkari izatea. | a) Representar al Foro. |
| b) Bilera ohiko eta ezohikoak deitzea. | b) Convocar las sesiones ordinarias y extraordinarias. |
| c) Udal teknikariak gonbidatzea. | c) Invitar a los Técnicos Municipales. |
| d) Eguneko aztergaiak zerrenda onestea. | d) Aprobar el Orden del Día. |
| e) Bileren buru izan eta garapena bideratzea. | e) Presidir y moderar el desarrollo de las reuniones. |
| f) Herritarren partaidetza bermatzea. | f) Garantizar la participación ciudadana. |
| g) Foroaren iritziak zabaltzea. | g) Difundir las opiniones del Foro. |
| h) Foroaren eta ingurumen gaietan eskumenak dituzten organismo desberdinen arteko harreman etengabea koordinatzea. | h) Coordinar la relación constante entre el Foro y los distintos organismos con competencias en medio ambiente. |
| i) Lehendakari izateak berez dakartzan bestelako eginkizunak egitea. | i) Desempeñar cuantas otras funciones sean inherentes a su condición de Presidente/a. |

9. artikulua. Lehendakariordetza

Foroaren osoko bilkurako kide den eta kudeaketa ardurak dituen zinegotzietako bat izango da lehendakariorde.

Artículo 9. La Vicepresidencia

Uno de los Concejales con responsabilidades de gestión que componen el Pleno del Foro, ostentará la Vicepresidencia.

10. artikulua. Lehendakariordetzaren eginkizunak

- a) Lehendakariari bere lan guztietan lagundu eta babestea.
- b) Lehendakariak eskuordetzen dizkion eginkizunak betetzea.
- c) Lehendakariorde izateak berez dakartzan bestelako eginkizunak egitea.

Artículo 10. Funciones de la Vicepresidencia.

- a) Colaborar y asistir al Presidente en todas sus funciones.
- b) Desempeñar aquellas atribuciones que le delegue el Presidente.
- c) Cuantas otras funciones sean inherentes a su condición de Vicepresidente.

11. artikulua. Idazkaritza

Foroko kide den Ingurumeneko Teknikari Gorena izango da idazkari.

Artículo 11. La Secretaría

El Técnico Superior de Medio Ambiente miembro del Foro, ostentará la Secretaría.

12. artikulua. Idazkariaren eginkizunak

- a) Bileretara joatea.
- b) Eguneko aztergaia prestatzea.
- c) Bileren akta jasotzea.
- d) Deialdiak, eguneko aztergaiak eta Foroak sortzen duen dokumentazioa bidaltzea.
- e) Foroko kideen adierazpen egintzak, hau da, jakitun egon behar duten jakinarazpen, zuzenketa edo bestelako

Artículo 12. Funciones de la Secretaría

- a) Asistir a las reuniones.
- b) Elaborar el Orden del Día.
- c) Levantar Acta de las reuniones.
- d) Enviar las citaciones, órdenes del día y cuanta documentación genere el Foro.
- e) Recibir los actos de comunicación de los miembros del Foro y, por tanto, las notificaciones, rectificaciones o cualquier

- edozein idatzi jasotzea.
- otra clase de escritos de los que deba tener conocimiento.
- f) Beharrezko sostengu juridikoekin aztertzen diren gaien lege alderdi eta kontuen aholkuak ematea. f) Asesorar, con los correspondientes apoyos jurídicos necesarios, en su caso, sobre los aspectos legales de los temas que se traten.
- g) Bere idazkari izaerak berez dakartzak bestelako eginkizun guztiak egitea. g) Desempeñar cuantas otras funciones le sean inherentes a su condición de Secretario/a.

13. artikulua. Lan Batzordeak

Artículo 13. Las Comisiones de Trabajo

1. Ingurumenarekin zerikusia duten gai puntualen beren beregiko tratamendurako Lan Batzordeak eratu ahalko dira, Foroko kideek egoki irizten diotenean. Foroko lehendakariak zehaztuko du nola osatu, izendatu eta funtzionatuko duten.
1. Se podrán constituir Comisiones de Trabajo para el tratamiento específico de temas puntuales relacionados con el Medio Ambiente, cuando se considere necesario por los miembros del Foro. Su composición, denominación y funcionamiento serán determinados por la Presidencia del Foro.
2. Lehendakariak edo lehendakariordeak beharrezko eta egoki irizten dion udalaren edo kanpoko aholkularitza teknikoa eskatuko du, aztergaiak hala behar duenean behar den laguntza emateko.
2. El/La Presidente/a ó El/La Vicepresidente/a, solicitará la asistencia técnica municipal o de carácter externo que considere necesario y oportuno, al objeto de prestar su asesoramiento, cuando el asunto a tratar lo requiera.

14. artikulua. Tokiko Foroko kideen eskubideak eta betebeharrak

Artículo 14 Derechos y Obligaciones de los miembros del Foro Local

1. Hona hemen Foroko eskubide osoko kideen eskubideak:
 - a) Udaleko eta udal gobernuko erakunde eskudunek Fororako interesgarria den eta Ingurumenarekin zerikusia duen edozein gairen gainean hartzen duten erabaki guztien berri eman diezaieten.
 - a) Ser informados de todas las decisiones que los órganos competentes de Gobierno y gestión del Ayuntamiento tomen respecto a cualquier tema que sea de interés para el Foro y esté relacionado con el Medio Ambiente.
 - b) Foroaren baitan era daitezen lan talde edo batzordeetako edozeinetako kide izatea.
 - b) Formar parte de cualquiera de los grupos o comisiones de trabajo que en su caso se constituyan en el seno del Foro.
2. Hona hemen Foroko eskubide osoko kideen betebeharrak:
 - a) Egiten diren bileretara joatea.
 - a) Asistir a las reuniones que se celebren.
 - b) Joango ez badira jakinaraztea, bai uneko kontua bada, bai behin betiko utziko badute.
 - b) Comunicar su nó asistencia, tanto puntual como definitiva.

15. artikulua. Agintaldia

Artículo 15. Mandato

Foroko kide guztiak agintean egongo dira udal legealdia dirauen bitartean, hautatu dituzten legealdian.

Todos los miembros del Foro ejercerán su mandato mientras dure la Legislatura Municipal, constituida durante su elección.

II. GOIBURUA. ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

TITULO II. DE LA ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO

16. artikulua. Ohiko bilerak

1. Ingurumeneko Tokiko Foroak urtean gutxienez bi ohiko bilera egingo ditu.
2. Ohiko bilera edo saioen deialdia izan baino zazpi lanegun lehenago egingo da.
3. Foroaren lehendakariak premiazko modura sartu ahalko du, bilera hasi baino lehen, Eguneko Aztergaien zerrendan sartuta ez dagoen beste edozein gai.

Artículo 16. Sesiones Ordinarias

1. El Foro Local de Medio Ambiente celebrará las sesiones ordinarias, como mínimo, dos veces al año
2. La convocatoria de las reuniones o sesiones ordinarias deberá realizarse con siete días hábiles de antelación a su celebración.
3. La Presidencia del Foro, podrá incluir con carácter de urgencia y, previo a su inicio, cualquier otro asunto no comprendido en el Orden del Día.

17. artikulua. Ezohiko bilerak

1. Ezohiko bilerak egin ahalko dira, Foroko kideen gehiengoak proposatu eta Lehendakariak onestekotan.
2. Ezohiko bilera deialdiaren osteko bi lanegunen barruan deituko da.
3. Deialdia pentsatutako eguna baino 48 ordu lehenago egingo da.

Artículo 17. Sesiones Extraordinarias

1. Se podrán celebrar reuniones extraordinarias, a propuesta de la mayoría de los miembros del Foro, con la aprobación de la Presidencia.
2. La reunión extraordinaria deberá ser convocada dentro de los dos días hábiles siguientes a la petición de la convocatoria.
3. La convocatoria se realizará con 48 horas de antelación a la fecha prevista.

18. artikulua. Bileretara joatea

1. Lehendakariak bileraren deialdian bestelakorik esan ezean, bilera ez da publikoa izango, eta deitutako foroko kideak soilik joan ahalko dira eztabaidetara.
2. Hala ere, Foroko lehendakariak aztergaiekin zerikusia duten pertsonen edo interes publikoko helburuak dituzten erakundeei bilera zehatzetara joateko gonbitea luzatu ahalko die. Gonbitea idatziz eta bileraren deialdia

Artículo 18. Asistencia a las reuniones

1. Salvo que así lo determine en la convocatoria de la sesión la Presidencia, ésta no será pública, pudiendo asistir a los debates únicamente los miembros del Foro convocados.
2. No obstante, la Presidencia del Foro podrá invitar para asistencia a sesiones concretas, a personas relacionadas con los temas a tratar o a organizaciones que persigan fines de interés público. La invitación se realizará por escrito y de

baino lehen luzatuko da, eta hala agertuko da eguneko aztergaien zerrendan.

forma previa a la convocatoria de la sesión, figurando en el Orden del Día.

19. artikulua . Bileren araubidea

Artículo 19. Régimen de Sesiones

1. Ingurumeneko Tokiko Foroa eratuta geratuko da, lehenengo deialdian, bilerara gutxienez osoko eskubideko kideak diren pertsonen erdia eta bat gehiago bertaratzen direnean eta, bigarren deialdian, ordu erdi geroago, kopurua dena delarik, betiere lehendakaria edo lehendakariordea eta idazkaria baldin badaude.
 2. Eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak baino ez dira eztabaidatuko, eta lehendakaritzak onetsi ondoren premiazko modura sartzea erabakitzen den beste edozein.
 3. Idazkariak bilera bakoitzaren akta jasoko du, non bertaratuak, eztabaiden gorabehera nagusiak eta azaldutako ikuspegi desberdinak jasoko diren.
 4. Aktak egiten den hurrengo bileran onetsiko dira.
1. El Foro Local de Medio Ambiente se considerará constituido en primera convocatoria cuando asistan a la reunión, al menos la mitad mas una de las personas miembros de pleno derecho que lo componen, y en segunda convocatoria, media hora mas tarde, cualquiera que sea su número, siempre que estén presentes la Presidencia o Vicepresidencia y la Secretaria.
 2. Sólo podrán ser objeto de debate, los asuntos que figuren en el Orden del Día, , y cualquier otro que, tras la aprobación de la Presidencia, sea declarado como urgente su inclusión.
 3. Por la Secretaría se levantará Acta de cada sesión, en la que se especificará las personas asistentes, los principales aspectos de las deliberaciones, así como los diferentes puntos de vista expuestos.
 4. Las Actas se aprobarán en la siguiente sesión que se celebre.

20. artikulua. Amaierako artikulua

Artículo 20. Artículo Final

Ebazteko eta erabakitzeko ahalmenak kanpoan geratuko dira, udaleko ordezkartzako organoei soilik dagozkielako.

En cualquier caso, quedan a salvo las facultades resolutorias y de decisión que corresponderán única y exclusivamente a los órganos municipales representativos.